

# ARANTZAZU'KO ANDRE MARIA

GIPUZKOA'KO ZAINDARIA

---

**G**ARAI guzietan, bere Aloña mendiko agerpen miraritsua ezkerro, gipuzkoarrak ezagutu izan dute beren zaindari ezitsuz Arantzazu'ko Andre Maria, ta garai guzietan Ama maitetsu onek zorionezko emaitzak zabaldu ditu bere seme zintzoen artian.

Orain arte ordia gipuzkoarrak ezagutu izan badute Arantzazu'ko Ama ezitsua beren zaindari gurgarritzat, naimen gogotsu baten bitartez izan da. Aurtengo urtetik aurrera Aita Donearen agindu laztan baten gatik izango da.

Aita Done Benedikto Amabostgarrenak, aurtengo Ilbeltza'ren 23<sup>an</sup> erabaki zuben, ordutik aurrera gipuzkoarrak ezagutu zezatela beren zaindari bereziaz Arantzazu'ko Andre Maria.

Poz, atsegin, alaitasun aundiakin entzun zuben Gipuzkoa'ko erri leñargiak Aita Donearen aginte laztana; ta gogotsu betetzeko asmua artu zuen sendo ta biziro.

Ill onen bederatzian gipuzkoar zintzoak, beren aurkestariak buru zituztela, ta aurrenengo Gazteiz'ko Apezpiku jaun argidotarra zeukate-la, azaldu zuten Arantzazu'ko Ama maitearen oñetan zer pozaz Aita Donearen agindua jasotzen zuten, ta zer gogotsu ezagutuko zuten aurrera gipuzkoarren zaindari bereziaz.

Iduritzen zaigu Arantzazu'ko Ama mireritsuak atsegiñez ikusi duela Aita Donearen erabakide gogoangarria ta gipuzkoarren zindutasun oso osoa. Ta iduritzen zaigu gañera, Ama maitekorra asi dala ordaintzen bere ongirik aundienarekin.

Balzategi'ko Rodrigo artzai zorionekoai Aloña mendian agertu zitzaion garai urrun ayetan, euskaldunak jazar biziyan arkitzen ziran.

Oñeztarrak batetik, gainboatarrak bestetik, alkar jo, alkar ill, uriak erre ta lapurtu; odolez estaliya zegola esan leike orduban gure Euskal erria.

Gorroto charrak, ezin ikusiyak, anai arteko guda ikaragarriak, etzan besterik agertzen euskaldunen artian Arantzazu'ko Amia maitia agertu zan egunetan; bañan beriala, Ama laztan onen bitartez gauzak oso osorik chandatu ziran.

Aztu ziran gorroto charrak, zokoratu ziran ezin ikusiyak, amaitu zan anai arteko guda kaltegarria; ta oñeztar ta gainboatarrak, batzuek eta bestiak, euskeldun guztiak laztan gozoan eztutu zituzten beren biotzak, zeruko Ama errukitsuaren asmoak zuzenki beterik.

Ori izan zan Arantzazu'ko Ama miraritsuaren lenengo egipen maitagarria, euskeldunak alkarganatzia, euskeldunen arteko eztabaidak zokoratu ta guztiyok bakuntza eder batian biltzia.

Orain ere arlako zerbait gertatu dala, uste degu esan litekela.

Ill onen 9-an, Arantzazu'ko eleiz apañian, Ama mireritsuaren oñetan, jaitu zan gure Ama maitearen zaindardtasuna; bañan lenago, zortzi egunian bilduta egon dira batzar gogoangarrian Euskal erri guziko jaun argidotarrak Oñati'ko uri leñargian. Eta batzarre ortan gauza guziena gain azaldu dana, euskaldunen arteko batasuna, anaitasuna izan da.

Odol isurtzerik ez badaukagu ere, Jaungoikoari eskerrak, gaurko eguneko euskeldunen artian; baditugu alare ausi ta eztabaidak, oraindikan ere badira gure artian oñeztar ta gainboatarrak. Guztiya aztu da ordia Oñati'n bildu diranian, ta guztiyak bat egiñik gogotsu ta pizkor lanari eraso diote Euskal erriari dagozkion ikasbideen alde.

¿Ez da argiro azaltzen egipen ontan Arantzazu'ko Andre Maria'ren bitartekotasun maitagarria?

Ez da beñere izan Euskal errian, aurten Oñati'n egin dan bezelako batzarre gogoangarririk. ¿Nondik sortu zan batzar ori aurten egiteko asmoa, Arantzazu'ko Ama maitia zaindari berezitzat izendatu dan urtian bertan? Gauza arrigarria iduritzen zaigu beñere egiñ ez dan gauza bat, ain sušen aurten egiteko asmoa artzia. ¿Ez da usmatzen emen Arantzazu'ko Ama estitsuaren bitartekotasuna?

Baña billera ori, ez bakarrik erabaki zuten aurten egitia, baizik Irailla'ren lenengotik zortzira. ¡Ta Aita Doneak il beraren bederatzia aukeratua zeukan Arantzazu'ko Andre Maria'ren jaitzat! ¡Arrigarria ez da au guztia!

Geyago oraindik.

Badira Euskal errian makiñabat erri egoki onelako batzarrak egiteko, ta ala ere ez dute beste erririk aukeratu, Oñati baño, Arantzazu'ko oñetan dagon uri leñargia. Ama maitekorrak, bere beso artian batzarkideak iruki nai balitu bezela.

Eta ala iruki ez ditula ez genduke esango, bada lenengo egunetik geyena gaintitu dana, batzarkideen arteko batasuna, anaitasuna izan da.

Baziran iritzi bateko ta bestekuak, guztitatik bazan, bañan guziyak alkar artu dute senidetasun atsegiñean, Euskal erriaren ganako lei sutua azalduaz.

Orrengatik iduritzen zaigu Arantzazu'ko Ania maitekorra asi dala gu gan bere ontasunak zabaltzen.

Orrengatik iduritzen zaigu Arantzazu'ko Andre Maria'k onetsi ditubela aurtengo batzarkideen lanak.

Eta ori orrela dala, sinismen osoan gaude Euskal erria'ren aurrerapenerako egiten diran sayuak garaipentsu irtengo dirala, ta oso goitubata ikusiko degula gure lur maitia.

Bañan beti Arantzazu'ko Ama errukitsuaren baso laztan artian.  
Alabis.

M. UGALDE

